

AKTA

Akta zenb. Organoa Batzarra Tokia Eguna Deialdia Hasiera ordua Amaiera ordua	2009/5 Udalbatza Ohiko Osoko Bilkura Udaletxeko areto nagusia 2009-07-30 Lehenengoa Arratsaldeko 19'30etan. Arratsaldeko 19'45an.
---	--

Bertaratutakoak:

1. Jesús M. Fullaondo
2. Iker Arostegi
3. Kepa Arrizabalaga
4. Leixuri Arrizabalaga
5. Gotzon Arrieta
6. José M. Markaida
7. Deitze Erkoreka
8. Maite Elordui
9. Iñaki Aginaga

Aholkulari juridikoa: Ortzi De la Quintana

Behin-behineko Idazkaria: José Ignacio Etxebarria Atutxa

Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar dan gutxieneko kopurua dauala ikusi ondoren, eguneko aztergaian agertutako gaiei buruz eztabaidatu dabe:

1.- ARTEKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

2009ko maiatzaren 28ko, ekainaren 4ko eta ekainaren 29ko osoko bilkuretako aktak, ahobatez onartzen dira. Ekainaren 22ko osoko bilkurako aktaren gainean, Deitze Erkorekak ohar bi jakinarazo dauz, eta eurek zuzentzea erabaki da.

2.- ALKATETZA DEKRETUAK.

2009-75 zenbakitik 2009-83 zenbakirarteko Alkate dekretuen kontu emoten da, eta ez da oharrik egon.

3.- BAKE EPAILE NAGUSIA ETA ORDEZKOA.

Alkate jaunak, hurrengo lau urteetarako Bake Epaille nagusi eta ordezkorako proposamenak aurkezten dauz:

Bake Epaille Nagusirako: Alaitz Erkoreka Eguskiza.
Ordezko Bake Epailerako: Onintza Urrutia Arruza.

Zinegotzi guztiek alde bozkutzen dabe. Deitze Erkoreka zinegotziak ez dau bozkutzen gai honetan interesatua dalako.

4.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ESKAKIZUNAK.

Gizarte langileak egindako txostenak kontuan harturik, ahobatez onartu da Y.P.B. andreari 870,00.- eurotako, I.L.Z. andreari 722,31.- eurotako, M.E.S. andreari 397,90.- eurotako, eta C.B.L. jaunari 330,68.- eurotako gizarte larrialdietarako laguntzak emotea.

5.- 2008KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Gatikako Udalaren eta Gatikako Herri Sustapenak, A. B. enpresa publikoaren, 2008ko Kontu Orokorra eta 2008ko abenduaren 31ko data kontu harturik dagozan kontu finkatuak, ahobatez onartzen dira behin-betiko.

6.- ESKABIDE ETA GALDERAK.

6.1 Desbrozadora

José M. Markaidak galdetzen dau ia nola dagoen desbrozadoraren asuntua.

Alkateak erantzuten deutso lanean dabilela, Markaidak utzi deuskun beste esku bategaz.

6.2 Idazkariaren izendapena

José M. Markaidak galdetzen dau ia nola doan idazkariaren kontratazioa.

Alkateak erantzuten deutso, “funcionario interino” bat kontratazeko konbokatoria martxan dagoela. Baseak eginda dagoz eta abuztuaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla.

José M. Markaidak galdetzen dau, ia eurek base horreek ikusi ahal dabean, eta alkateak esaten deutso baietz.

6.3 Arkitektu teknikoaren kontratazioa

José M. Markaidak galdetzen dau, ia nola izan dan aparejadorearen kontratazioa.

Alkateak esaten dau, Urdoko eskolen obren direkzioa eroan beharrak prisa apur bategaz ibiltzea eskatzen zuela, eta orduan abendurarte “comisión de servicios” bitartez kontratatzea erabaki zala, eta gero abenduan kontratazio zabal bat egiteko ideia dagoela.

6.4 Urdoko aterpetxea

J. M. Markaidak galdetzen deutso Alkateari, Urdoko aterpetxearen obren Osasun eta Seguritatearen koordinazioa ia aparejadore honek ezin bazuen egin.

Alkateak esaten dau, Iñaki aparejadoreak esan eutsola aparejadoreek ez dabela hori egiten, horretarako enpresak dagozela. Irantzu egon bazan berak egingo bazuen ala ez, berak hori ez dakiela.

José M. Markaida zinegotziak esaten dau, berari Irantzuk horren gainean berba egiteko batzar bat egin beharko zala esan eutsola, eta horregaz berak ulertzen zuela Irantzu prest egongo zala lan hori berak egiteko.

Alkateak erantzuten deutso, Iñaki aparejadoreak esan eutsola Irantzugaz egon dala honen gainean berbetan eta berak ez dauela asmorik eduki hau eroateko, ulertzen dauelako ez dala aparejadorearen beharra, horretarako dagozela honetara zuzenean dedikatzen diren enpresa honeek eta. Baita esaten dau alkateak, orain arte ez dala ezer gertatu egindako obretan, baina ezer gertatu ezker koordinadore horren erresposabilitatea dala eta horregatik Tesysal enpresa kontratatu dala.

6.5 Depuradora

José M. Markaida zinegotziak galdetzen dau, ia depuradorari buruz ezer dakigun.

Alkateak erantzuten deutso, ez daukagula barririk eta momentuz lotuta dagoela.

Iluntzeko 19'45etan amaitutzat emon da bilera.

IDAZKARIA

ALKATEA